

# **Sustentagarritasuna, sozio ingurumen gatazkak eta demokrazia parte hartzailea: Euskal Herrira begiratu bat**

(Sustainability, environmental conflicts and participative democracy: a look to the Basque Country)

MARTÍNEZ, Jone; BÁRCENA, Iñaki; GOROSTIDI, Izaro;  
LARRINAGA, Josu; ZURIMENDI, Epifanio  
Euskal Herriko Unib. (UPV/EHU). Gizarte eta Komunikazio  
Zientzien Fak. Politika eta Administrazio Zientzien Saila.  
Sarriena Auzoa z/g. 48940 Leioa

---

Artikulu honetan Parte Hartuz ikerketa taldeko sustentagarritasun azpitaldeak 2004-2008 urteen artean garaturiko ikerketan oinarriturik, 2000-2007 urte tartean Euskal Herrian garaturiko sozio-ingurumen gatazken azterketa eta interpretazioa ematea bilatzen da. Horretarako, aztertutako hamar kasuetan eman zaien irteera parte hartzaile berrien deskribapena eta ebaluazioa azalduko dugu, bai dimentsio kuantitatiboan, bai dimentsio kualitatiboan. Hartara, artikulu honen azken helburua, sozio ingurumen gatazketan sortu diren mekanismo parte-hartzaileen azterketa eta ebaluazioa egitea da.

Giltza-Hitzak: Sozio ingurumen gatazkak. Demokraziaren kalitatea. Mekanismo parte hartzaile berriak. Hiritar parte hartzea.

En el presente artículo, tomando como base la investigación desarrollada por el subgrupo de sostenibilidad del grupo de investigación Parte Hartuz, durante los años 2004-2008, se intenta llevar a cabo el análisis e interpretación de los conflictos medioambientales desarrollados en Euskal Herria durante los años 2000-2007. A este fin, procedemos a la descripción y evaluación de las novedosas soluciones participativas dadas en los diez casos estudiados, tanto en su dimensión cuantitativa como en su dimensión cualitativa. Así pues, el fin último del presente artículo es la realización del análisis y evaluación de los mecanismos participativos surgidos en los conflictos medioambientales.

Palabras Clave: Conflictos medioambientales. Calidad democrática. Mecanismo participativo. Participación ciudadana.


L'article reprend les interprétations et les analyses concernant les conflits socio-environnementaux surgis au Pays basque entre 2000 et 2007, fruits de la recherche menée entre 2004 et 2008 par la commission chargée du développement durable au sein du groupe de recherche Parte Hartuz. Pour cela, voici une présentation et une évaluation des nouvelles solutions basées sur la participation qui se sont imposées dans les dix cas étudiés. Ainsi, l'objectif final de l'article est d'évaluer et de décrire les mécanismes de participation intervenant dans les conflits socio-environnementaux.

Mots Clés: Conflits socio-environnementaux. Qualité démocratique. Nouveaux mécanismes de participation. Participation citoyenne.

## 1. SARRERA

2004- 2008 urte tartean garatutako eta hurrengo komunikazioan aurkezten den saio ikertzaileak hiruki teoriko eta epistemologiko baten barruan mugitu egin da (1. ird). Hiruki horren oinarrian sozio ingurumen krisia eta krisi demokratikoa baldin badaude, beste erpinean natura eta gizartearen arteko harremanak orekatzeko, bai eta gizakia eta politikaren artekoa birantolatzeko, zabaldu den demokrazia parte-hartzailearen inguruko eztabaidak kokatu egin da. Oinarrian aurkitzen diren eta elkarrekin bizi diren horiek krisi biak, demokrazia parte hartzailearen sorrerarako Aukera Politikoaren Egitura izan ahal diren heinean agertzen dira elkarlotuta. Triangelu horretako aldeetan, hiru kontzeptu nagusi agertzen dira; lehenengo eta behin gatazka, bi krisien arteko harremana landuz eta bi krisi horien irteera positiborako aukera posible gisa. Bigarrenik, sustengarritasuna sozio ingurumen krisiari eman ote zaion saio kontzeptuala den heinean. Hirugarrenik, gizarte mugimenduak, demokraziaren krisiaren irteera positiborako eragileetako bat delarik. Finean, hiruki teoriko honen baitan eta zeharkako eran, generoaren aspektua azpimarratu beharko genuke. Emakumeen eta naturaren arteko harremanari buruzko eztabaidak sortu izan dira azken berrogei urteetan zehar mundu akademikoan, non ikuspuntu esentzialistak jarrera konstruktibistekin talka egiten duten. Zentsu horretan sozio ingurumen gatazkek ingurumen aferan emakumeen parte hartzea aztertzei aukera analitikoak azaltzen dute.

### 1. Irudia. Sozio ingurumen krisia, demokraziaren krisia eta demokrazia parte hartzailearen arteko harremana



Krisia da gaur egungo modazko hitz arrunta, edonon erabilia. Gehienetan, krisia erabiltzen da, hazkunde ekonomikoaren krisia nabarmentzeko baina ingurumen ikuspuntu soil batetik, agian krisi ekonomiko horrek naturarekiko errespetua handitzea ekar lezakeen. Demokrazia eta demokratizazio prozesuen krisia ere nabaritu daiteke egun. Ingurumena eta demokraziaren arteko krisiaz eta gatazkaz hitz egiterakoan, bi kontzeptuen arteko harremanak nola ulertzen diren argitzea ezinbestekoa da. Alde batetik, demokraziaren funtsari erreparatzen bazaio, erakuntza politikotik harago, izaera edo jarduera bat da, jarrera politiko bat arazo politikoak bideratzeko non eskuzabaltasuna eta askatasunak -pluralean- erreferenteak diren eta berdintasuna eta dibertsitatea helburu nagusizat jotzen diren. Modu berean, sistema politiko demokratiko batean horizontaltasuna eta bake-bideak, hierarkiak eta errepresioaren gaintik agertzen dira. Demokraziak, izatez, menperatzearen logikari ezetza ematen dio eta horrela erregimen demokratikoetan eztabaida eta arazo politiko eta sozialen konponbideetan ez dago alde aurretiko jakintzarik, arrazoirik, botererik, aginterik edo legitimaziorik. Ez dago ministroari, alkateari, apaiza edo zientzialariari lehentasun edo berebiziko legitimitaterik ematen dion legerik, legitimazio hori eztabaida eta deliberazio librean kontrastatu behar baita. Gainera, demokrazian norbanakoa eta taldearen arteko oreka bilatzen da, eskubide partikularrak eta kolektiboak orekatuz, autonomia eta kontrola antolatuz.

Zentsu horretan, demokraziaren orekaz aritzean, eta Mouffen tesiak jarraikiz, demokraziaren eskutik gatazka agertzen da. “Demokrazia interpretazio eta iritzi desberdinen aurkakotasun agonistikoa” den heinean, gatazka, oro har, eta sozio ingurumen gatazka zehazki, demokraziaren demokratizaziorako abagunea suposatzen du (Mouffe, 2000: 22).

Aurretik, zehaztekoa da, gatazka, bortxatik desberdinduriko eraikipen soziala dela. Sozio ingurumen gatazken definizio zehatzagoa emateko, ahalbidetzen duen planteamendua, Mc Adam, Tilly eta Tarrow, hiru teorikoen esku datorrena atxikitu beharko litzaioke<sup>1</sup>; “Interakzio episodiko eta publikoa aldarrikatzaileen eta euren objektuen artean, baldin eta (a) gobernu batek aldarrikatzaileetako bat bada, eta aldarrikapenen alde bada, eta (b) aldarrikapenak, egikarituak izatekotan aldarrikatzaile baten interesak eragiten baditu” (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005: 5).

Ildo horretan, eta 2. irudian ikusi daitekeenez, demokraziak ordezkatzailearen ereduak prozesu demokratiko itxian hezurramitzen dela esan genezake. Herritar eta ordezkarien arteko elkarguneak aurretik mugatuta daude, alegia, lau urtero hauteskundeak, noizean behin erreferenduma, botere eskualdatze eta honen pluralismoaren zenbait erakustaldi konkretu, e.a. ziklo itxi aurkezten dute. Zentzu horretan, gatazkek oro har, eta sozio-ingurumen gatazkak zehazki, demokraziaren izaera itxiarekin eta zehaztuarekin hausturatzat har daiteke. Mekanismo parte hartzaileak sortzeko eta herritarren parte hartzea bultzatzeko, demokrazia saretzeko eta sakontzeko, zoriz, ibilbide demokratikoaren sakontasuna eraikitzeko. Honi, irteera demokratikoa edo demokrazia prozesuaren irteera zentrifugoa deritzogu.


Ez dezagun ahaztu kontrako inpultsoa ere sor dezaketela gatazkek, alegia, demokraziaren sakontzea mekanismo parte hartzaileen bidez albo batera utzi eta Estatua

---

1. Egia bada, hiru autore hauen kontzeptualizazioa gatazka makroetan oinarritzen direla, estatuen artean, e.a. baina osoki argi usten dute haiek proposatzen duten kontzeptualizazioa maila mikroan, lokalean, aplikatu daitekeela (Mc, Adam, Tilly eta Tarrow, 2005: 9) inolako errore metodologian jautsi gabe.

eta botere faktikoen izaera errepresiboa sakonduz esparru demokratikoa itxi dezake-  
te. Bigarren aukera honi irteera autoritarioa edo irteera zentripetoa deritzogu.

## 2. Irudia. Demokraziaren irteera zentrifugoa eta irteera zentripetoa. Gatazka Aukera politiko gisa



Iturria. Martínez, 2009: 44

Finean, gure azterketa objektua sozio ingurumen gatazka lokalak eta honi lotuta agertzen zaion sozio ingurumen demokrazia da. Horrela, aurkezten dugun komunikazio honek ingurumen gatazkakortasuna eta demokraziaren kalitatea harremanetan jartzen ditu parte-hartzearen izaera eta dinamikaren sakontasunaren arabera. Beste hitz batzuetan esanda, lanak, sozio ingurumen gatazkei ematen zaien erantzun (ez) parte-hartzailearen arabera demokraziaren kalitatearen adierazle gisa hartuko du. Hots, “krisiaren kulturaren” adierazle diren sozio ingurumen gatazka eszenatoki batean (Riechmann, 2007: 52), administrazioetatik eta gizarte zibiletik ematen den erantzunaren dinamika parte-hartzailea aztertzea bilatzen du. Hortaz, komunikazio honetan Euskal Herrian garatutako hamar sozio ingurumen gatazken analisiaren laburpena paratuko dugu, hauen garapena eta dinamika parte-hartzaileak aztertuz.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1. Helburuak

Ikerlanaren zehar, bi helburu mota desberdin berezitu ditugu. Batetik, sakoneko helburuak; alegia, ikerlanaren aldagai nagusiak; parte hartzea ingurumen gatazketan, kontuan hartzen dituztenak eta hauen azterketan dihardutenak. Bestetik, helburu espezifikokoak, sakoneko helburuak identifikatu ahal izateko azpi galderak erantzutearekin arduratzen direnak, hain zuzen ere. Azken hauek izaera kuantitatiboa (zenbakarria) eta kualitatiboa (aldagaien izaeraz eta jarreraz arduratzen direnak) azal dezakete ondoren aurkezten dugun bezalaxe.

Sakoneko helburuen artean bi ditugu aipagarri, batetik, azkeneko 5 urteetan Euskal Herrian egon diren ingurumen gatazkak detektatu eta hauek kudeatzeko garaian erabilitako tresnak ezagutzeta eta baloratzea (inposaketa instituzionala, mugimendu sozialen borroka inpaktua, negoziazio eta akordiorako espazio berrien erabilera: herritar partaidetzarako mekanismoak etab.) Bestetik, parte-hartze mekanismoek izan duten paperean zentratuko gara zehazkiago.

Helburu espezifikoen artean eta lehen aipatu bezala izaera kuantitatiboa dutenak eta izaera kualitatiboa dutenak aurkezten zaizkigu. Lehenengoan artean; Azkeneko 5 urteetan egon diren ingurumen gatazken inbentarioa/mapa egitea eta lurralde eta gaien arteko konparaketa eta erlazioak aztertzea eta Ingurumen politika publikoetako herritar parte-hartze mekanismoen esperientziak jasotzea ditugu bereizgarri. Izaera kualitatibokoei dagokionez; Tokiko 21 Agenden balorazio berri bat egin, eta egon diren eta dauden gatazkekin nola erlazionatu diren aztertzea bilatu dugu; Sakoneko kasuak aztertzea irizpidea desberdinei erantzunez: gatazka indartsu bat edukitzea eta tokiko 21 agendako foroa egotea; gatazkaren eragin maila; lekutze geografiko zehatz bat; paradigmaticoa izatea, emakumeen parte hartzea egotea, e.a.; Maila lokaletik gorako gatazken inpaktu eta dialektika lokala nolakoa izan den aztertu: eraginak, kudeaketa moduak etab; Azterketa konparatiboak ahalbidetzea, eta sozio ingurumen gatazketan eta hauetan sortzen diren mekanismo/prozesu parte hartzaileetan emakumeen parte hartzearen dimentsio formala eta edukizkoa aztertzea bilatu izan da.

### 2.2. Hipotesiak

Hipotesien izaerari so, esan genezake, hipotesi hutsak eta koerlatiboak ditugula nagusiki azpimarragarri gure azterlanean, zentzu horretan lau ditugu hipotesi nagusi:

Lehenengo hipotesia: Tokiko Agenda 21 dagoen lekuetan, gatazka ere aurkitzen da, eta biak paraleloki funtzionatzen dute.

Bigarren hipotesia: Ingurumen gatazkek (azpiegitura eta gai ekonomikoei loturik) ez dute esparru edo mekanismo parte-hartzaile komunik sortzen. TA21 eta bestelako erantzun instituzionalek (formatu proaktiboan, baina 2. mailako gaiekin) ez dute inolako paperik jokatzen ingurumen gatazkei irtenbideak bilatzeko. Itxurazko parte hartzea bai, baina benetako dinamika parte-hartzaileak etortzeke ditugu. Instituzio eta gizarte eragileen arteko komunikazioa eta elkarren arteko informazioa, benetako politika parte-hartzaileek, gatazka asko ekidin zezaketen.

Hirugarren hipotesia: Erantzun instituzionalek ez dute ingurumen gatazkak konpontzeko balio, izaera erreaktiboa dute:

- Tokiko 21 Agendek ez dute paper proaktiborik jokatzen ingurumen gatazkak sortzen direnean

Laugarren hipotesia: *High profile* gaiek (bereziki ekonomiarekin lotura dutenak) ukitzen dituzten ingurumen gatazketan ez dira parte hartze mekanismorik bultzatzen (eta egiten badute, izaera kosmetikoa dute):

- Saiakuntza parte hartzaileak anitzagoak dira *low profile* gaietan

### 2.3. Faseak

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, lau fase desberdin gauzatu ditugu gure azterlanean, fase esploratzailea, fase analitikoa, fase analitiko zehatza eta ondorio eta harreman fasea.

Lehenengoa, hots, fase esploratzailea, hasierako elkarrizketa esploratzaileak egitearekin arduratzen da. Euskal Herrian dauden sozio ingurumen gatazken eza-gutza orokorra lortzea da honen helburu nagusia. Horrela, aztergaiari lehenengo hurbilpena egiten diogu, finean, operatiboki Euskal Herriko gatazken inbentarioaren sistematizazioa lortu izan dugu.

Bigarren fase analitikoan, aztertutako materialaren deskripzioa eta sistematizazioa egitea ditu helburu. Sozio ingurumen gatazken inbentarioan jasotzen diren tendentziak aztertu eta ikerketa zehatzerako azterketa kasuen aukeraketarako aldagaiak zehaztea izan da fase honen egintzarik adierazgarriena.

Hirugarren fase analitiko zehatzean, azterketa kasuen behaketa egitea bilatu da sakoneko elkarrizketa estrategikoen bidez. Horrela, datuen sistematizazioa eta azterketa kasuen idaztea izan dira honen helbururik aipagarrienak.

Azken fasean, alegia, ondorio edo harreman fasean, datuen azterketa zehatzari ekin diogu. Azterketa kasuen arteko aldagaien arteko tendentzien arteko harremanak zehaztu eta horien araberako ondorioak egitea izan da fase honen helbururik behin-goena.

### 2.4. Tresna metodologikoak

Oro har, metodologikoki hiru aspektu landu nahi izan dira ikerlanean. Lehenengo eta behin, dokumentala, hots, egunkarien, liburuen eta aldizkarien, bilketa eta analisisa. Bigarrenik, kasuen aukeraketa (Desk Research) egin izan da, eta hirugarrenik Jatorrizko datuen bilketari ekin izan zaio, honetarako, hamalau elkarrizketa erdi-egituratuak eragile sozio-politikoekin (instituzional eta gizarte eragileak) eta eduki eta diskurtso analisisa, aukera politikoaren egitura eta eragile sozio-politikoaren soziogramak egin eta azaldu izan direlarik.

Era berean, bi dimentsio desberdin jorratu nahi izan dira azterketan, dimentsio kuantitatiboa, datuen kuantifikazioarekin lotura duena eta dimentsio kualitatiboa, sakoneko elkarrizketen, talde eztabaiden eta dokumentuen analisiaren azterketatik sortutako informazioaren tratamenduan datzana, hain zuzen ere. Lehenengoari so

eginez, ikertaldearen helburua dauden sozio ingurumen gatazken eta parte-hartze guneen inbentarioa eta sistematizazioa (prentsa/kontaktuak/galdeketak/fitxak) egi-tean datza. Ildo berean, dauden Tokiko 21 Agenden kuantifikazioa egitea bilatu da. Bai eta herriz-herriko izaera kuantitatiboko datuak kuantifikatu ditugu, gatazka bakoitzeko fitxategi gaurkotu eta sistematizatu lortuz.

Dimentsio kualitatiboari so, batetik, izaera orokorreko elkarrizketa estrategikoak gauzatu ditugu. Hasteko, sakoneko bost elkarrizketa esploratzaile (Euskal Herriko hegoaldeko herrialde bakoitzeko bat, eta bat Euskal Herriko iparralderako) egin izan dira, bai adituei, bai kazetari anbientalistei, bai agente sozial eta instituzionalei. Hauek, batez ere, ikuspegi orokorra hartzeko egikaritu dira; gatazkak, parte-hartze mekanismoak etab. non egon daitezkeen identifikatzera ahalbidetu dute. Bestetik, izaera espezifikotako elkarrizketa estrategikoak egin izan dira. Tokiko gatazka/mekanismo zehatz baterako bi elkarrizketa (alde instituzionalekoa eta gizarte zibileko pertsona bat) gauzatu. Helburua, sakoneko hamabi kasuen diseinurako balio izatea da (1.ird.). Dimentsio kualitatiboari dagokionez ere, bigarren mailako iturrien azterketa gauzatu izan da: Hemeroteka lana, dokumentu ofizialen azterketa, lan monografikoen azterketa, e.a. eginez.

Azkenik, mintegiak eta itzulketa tailerrak gauzatu izan dira, hauetan, ikerlanaren zehar aurkeztutako ondorioak, datuak, e.a. ikerlanean parte hartutako subjektuei itzuli zaie. Mintegietan, Parte Hartuz ikerketa taldeko kideak parte hartzeaz gainera, bestelako irakasle, ikertzaile eta ikasle parte hartu izan dute landutako *working paper*ren gaineko eztabaida jorratuz. Itzulketa tailer bi gauzatu izan dira, lehenengoa Analisi politiko kritikoren I jardunaldietako esparrua profitatuz. Bigarrena, Bastidan antolatutako mahai inguru baten harian sortua. Itzulketa tailer hauen helburua, ikerketaren zehar elkarrizketaturiko subjektuei eta sozio ingurumen gatazkan parte hartutako aktoreei lana aurkezteaz gainera euren gogoetak, eta iritziak jasotzean datza.

## 2.5. Genero perspektiba gizarte ikerkuntzarako tresnetan

Hasieratik izan dugu gure ikerlanak genero perspektiba izateko helburua. Dena den, horren zabala dugun genero perspektiba kontzeptua operazionalizatu beharra ikusi dugu. Zentsu horretan, Emakundek honakoa dio genero perspektibaz:

[...] genero perspektiba ikerlanetan aplikatzea, gizon eta emakumeen artean ematen diren desberdintasunak, haien artean dauden egoera sozial diferenteak eta behar desberdinak sistematikoki kontuan izatea esan nahi du (Emakunde, 1998: 18).

Gure ustez, definizio honen operazionalizaziorako dimentsio kuantitatibo-formala eta dimentsio kualitatiboa kontuan izan beharko liriateke. Ildo horretan, era aktiboan eta ez sinbolikoan kontuan izateko gure ikerlanean: bi dimentsio kontuan izanen ditugu; Dimentsio formala edukizko dimentsioa. Dimentsio formala kanpo-formari egiten dio erreferentzia. Alegia errealitatearen alde kuantitatiboari, honetan gatazketan emakumezkoen kopuruaren parte hartzeari erreparatuko diogu.

Edukizko dimentsioa, errealitatearen sakoneko beste alde batzuei egiten dio erreferentzia; gatazkan ematen diren ekintzetan lanaren diferentzia generikoa ematen da? Bezalako galderak erantzunez.

Hortaz, azterketa kasu bakoitzean emakumeen parte hartzearen dimentsio formala eta edukizko dimentsioaren azalpena lortu nahi dugu. Horrela ere, perspektiba

hau garatzeko elkarrizketen egikaritzarako gidoian bi dimentsioak garatzeko galderak luzatu ditugu.

## 2.6. Analisi unitateak

3. irudian antzematen den bezalaxe, hamar izan ditugu azterketa unitate, hots, hamar sozio ingurumen gatazka aztertu izan ditugu. Hauen aukeraketa egiteko, kontroleko aldagaia genuen parte hartze mota eta honen existentzia aldagaien jarrera desberdinak zituzten azterketa kasuak aukeratu izan ditugu. Horrela, T21A duten udalerrriak, T21A ez dutenak, gonbidapenezko mekanismoak jaso dituztenak eta jaso ez dituztenak... aukeratu izan ditugu. Bestetik, ikergaiaren definizioari eragiten dioten beste aldagaien pluraltasuna zaindu izan dugu (lurralde desberdinetako gatazkak eta materia desberdinetako gatazkak). Hortaz, aldagai desberdinak jarrera diferentea duten kasuak aukeratzen saiatu izan gara.

### 3. Irudia: Azterketa sakona izan duten hamar kasuen zerrenda

Kasua	Ikergaiaren definizioa		Gatazkaren deskribapena		Kontrolerako aldagaia		
	Lurraldea	Gaia/ Materia	Aktore adierazgarriak		Gonbidapenezko mekanismo parte hartzaileen existentzia	Oldarkako mekanismo parte hartzaileen existentzia	Tokiko 21 Agenda
		Proiektuaren alde	Proiektuaren kontra				
1. Ilarduia	Araba	Harrobiak	EVE, PMC Echave, Ingurumen saila, Industria saila EJ	Kontzejua, Asparrenako udaletxea AFA(PP), Talde ekologistak UAGA, Mendizaleak	Gonbidapenez eta oldarkako mekanismoen konfuzientzia: Herri kontsulta (Kontzeju irekien markoan)		Bai
2. Bastida	Araba	Urbanismo	Udal korporazioa, sustatzaile pribatua eta ad hoc sortutako udal enpresa.	Torrolate Plataforma Alkatea (EB), UAGA	Ez dago. Soilik sortu egin zen proiektua eztabaidagabekotzat hartze zuen foro bat (7-06)	Plataformaren sorrera, alegazioak, arartekoaren aurrean errekurtsoak, buletinak, manifestaldiak.	Ez (kanpo lana gauzatzeko bitartean). Gaur egun sorrera fasean dago.
3. Lekeitio	Bizkaia	Azpiegiturak// Urbanismoa	Udaletxea, EJ errepide saila	Lekeitio gazteak, saihebidetaren kontrako plataforma bilduta	Mekanismo informatiboak	Plataformaren sorrera, Informazio kanpainak, asanbladak, bilera...	Bai
4. Zornotza	Bizkaia	Energia	EArek agerpen puntuala Bizkaia Energia (ESBren filiala)- EJ	Zornotza Bizirik Zornotza eginez, Ezker Batua /Batasuna (alderdi politikoak)	Mekanismo informatiboak	Herri kontsulta	Ez <sup>2</sup>
5. Mutriku	Gipuzkoa	Garraioa	Mutriku Bizirik, Tokiko Administrazioa	Mutrikuko Natur taldea, Hobetu leike	Bilera informatiboak Stakeholder batzordea	Plataformaren sorrera Asanblada irekiak	Bai

2. Aipatu behar genuke Amorebieta- Etxano Aalborgeko gutunera 2007an atxikitu izan zela. Hortaz, gure azterlana garatu izan dugun epealdian T21Arik ez zegoen.



6.Urnieta	Gipuzkoa	Hondakinak	Tokiko administrazioa, mankomunitatea	Arnasa	Mekanismo informatiboak	Asanblada irekiak Plataformen sorrera	Bai
7.Zestoa	Gipuzkoa	Hondakinak	Tokiko udal gobernua	Urola-Kosta Bizirik. Bagoaz (ezker abertzalea)	Gonbidapenez eta oldarkako mekanismoen konfuentzia: Herri kontsulta		Bai
8.Larra	Nafarroa	Energia	Tokiko Administrazioa, Nafarroako Gobernua	Zain Dezagun Larra plataforma, Larra Belagua Elkarte	Mekanismo informatiboak	Asanblada irekiak Plataformen sorrera	Bai
9.Itoiz	Nafarroa	Ura	Nafarroako gobernua, Espainako gobernua	Itoizko kordinakundea Itoizekin Elkartasun taldea, Uraren Plataforma	Mekanismo informatiboak	Asanblada irekia, kanpaldiak, hitzaldiak, eztabaida taldeak, plataformen sorrera, performanceak, manifestaldiak...	Bai
10.AHT Iparralden	Iparralde	Garraioa	Udal ordezkariak, auzokideak eta beste Frantziako instituzioak	CADE (Ipar Euskal Herriko konfederazio ekologista- 43 elkarte) udal ordezkariak, auzokideak eta beste Frantziako instituzioak	Interlokuzioa bai, parte hartze mekanismorik ez	Herri kontsulta prozesua, asanblada irekiak, eztabaida bilerak...	Bai


### 3. EMAITZAK

#### 3.1. Emaizten irakurketa globala

Maiz azaldu da Euskal Herriak asko dakiela sozio ingurumen gatazken inguruan, izan ere, sozio- ingurumen gatazken gorakada bat sumatu izan da azken hamarkadetan (1990tik), zeinen oinarria, ingurumen politika publiko baten implementazioarekin zerkusua dutela (Crespo, 1999: 1). Datu empirikoek ere, horrela azaltzen dute. Nahiz eta argi dagoen gatazka eta protesta adiera desberdina dutela<sup>3</sup>, esatekoa da TEA in-formeak (Transformation of Environmental Activism) 887 protesta kontabilizatu zuela Euskal Herrian 1988tik 1998ra (Barcena, Ibarra, Guarrotxena eta Torre, 2003: 200). Hurrengo grafikoan antzeman daitekeenez 1988tik 1997ra EH-an sortutako sozio ingurumen protestak 60-tik gorakoak ziren urtero (4. Ird.).

3. Gatazka, Mc Adam, Tilly eta Tarrow-i jarraikiz, “aldarrikatzaileen eta euren objektuen artean ematen den elkarrekintza episodiko publikoa da” honetan “gobernu batek aldarrikatzaileetako bat da, eta aldarrikapenen alde da” gainera “aldarrikapenak, egikarituak izatekotan aldarrikatzaile baten interesak hunkitzen ditu” (Mc Adam, Tarrow, Tilly, 2005: 5) aktoreak, izaera iraunkorra eta definitua daukate, aldeak argi eta garbi bereizi daitekeelarik. Konfrontazio jarrera ekintza transgresiboetan egikaritzen da. Protestan berriz, aktoreak ez dira erabat definituak, kutsu aldakorra eta lurrunkorra daukate. Protestetan erabiltzen diren ekintza ereduak konfrontazio maila baxuagoa dute. Beraz, ondoriozta daiteke gatazka guztiak direla protesta baina ez protesta guztiak gatazka.

#### 4. Irudia: 1988tik 1997ra ingurumen protestak Euskal Herrian



Iturria: Barcena, Ibarra, Guarrotxena eta Torre, 2003: 201

Bere aldetik, Euskal Herria gure ikerketaren unibertsoztat hartuta, eta aurrera eramandako kanpo lana aztertuta (2000 eta 2007. urteen artean emandako sozio ingurumen gatazken inbentarioa, hain zuzen ere), ondorengo datuak lortu izan dira: 2000 eta 2007 urteren artean 108 sozio ingurumen gatazkak aurkitu dira. Bizkaia da sozio ingurumen gatazka gehien jaso dituen lurraldeak (%37,04). Honi jarraituz, Gipuzkoako Lurralde Historikoa aurkezten zaigu, izan ere, azken bi hamarkadetan (1980- 2000) hiri hondakin gordinen gestiorako azpiegiturak planifikatu baitira, hots, errauskailuak, hiri- zabortegiak, e.a. eta hauei guztiei gizarte zibiletik emandako erantzun soziala protesta indarrean egikaritu da (5. Ird. eta 6. Ird.).


Ikerketan lortutako datuei jarraikiz, Araba da sozio ingurumen gatazka gehien duen hirugarren lurraldea. Gatazken izaerari so, beste tendentzia bat jarraitzen dute hauek Araban, izan ere, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan, bai Nafarroan hondakin, garraio azpiegiturek, energia eta urbanismoaren hazkundeak dira protesta eta gatazka gehien iturburua. Araban berriz, energiaren produkziarako azpiegiturak (nuklearra eta eolikoa) eta urbanismoaren gorakadak (Golf zelaien sorrera) azaltzen dira gatazka-gai nagusi, garraio azpiegiturak eta hondakinen kudeaketarako oin-egiturak baztertuz. Finen, eta gatazkakortasun maila gutxiagorekin, Nafarroa eta Iparralde aurkitzen dira; hauek ere, gatazken iturburu garraio oin-egituren, energia produkzio eta hondakinen kudeaketarako sortzen diren proiektuen inguruan aurkezten dira. Azkenik, bada lurralde guztiei eragiten dien makro- proiektu gatazkatsua, hots, Abiadura Handiko Trenna. Nahiz eta gatazka bat bakarra balitz kontabilizatu dugun, argitzekoa da lurraldez lurraldeko protestak sortu direla 1990. hamarkadatik, egia bada ere 2000. urtetik inpaktu mediatiko handiagoa lortu dutela.

### 5. Irudia: 2000 eta 2007. urteen arteko sozio ingurumen gatazkak Euskal Herrian

Lurraldea	Sozio Ingurumen gatazken kopurua	Sozio ingurumen gatazken kopurua (%)
Bizkaia	40	37,04
Gipuzkoa	29	26,85
Araba	18	16,67
Nafarroa	16	14,81
Iparralde	4	3,7
Lurralde guztiei eragiten dieten gatazkak	1	1
Guztira	108	100

Iturria: egileek beraiek egina sortutako sozio ingurumen inbentarioan oinarrituta

### 6. Irudia: 2000 eta 2007. urteen arteko sozio ingurumen gatazkak Euskal Herrian




Iturria: egileek beraiek egina sortutako sozio ingurumen inbentarioan oinarrituta

Argi dago, sozio ingurumen gatazken kopurua eten ezik, gora egin duela azken boladan eta etorkizunean eteteko itxurarik ez dagoela dirudi.

Bere aldetik eta adigarria da bai Nafarroan bai EAE-n aurkitzen diren T21A-n kopurua adierazgarria dela (7. Ird.). EAERI so eta IHOBE-k sortutako datu ofizialen arabera, EAEko 252 udalerrietatik 191k sinatu dute Aalborgeko gutuna eta beraz, T21Aren

faseren batean aurkitzen dira<sup>4</sup>. Beraz, udalerrien %75,79k atxikituta dago T21Ara. Nafarroari dagokionez, datuak baxuagoak dira. Bautista Cerroren arabera, soilik udalerrien %7-a sinatu zuten Aalborgeko gutuna 2004 arte (Bautista, 2006: 136).

### 7. Irudia: Tokiko 21 Agendak Euskal Herrian



Iturria: Egileek beraiek egina, IHOBeko eta sostenibilidad.org informazioan oinarrituta

Datuak antzemanda, mapa bien arteko harremana deskribatzea dagokio ikertaldeari. Bai sozio ingurumen gatazken kopurua, bai Tokiko 21 Agenden kopurua tentsioa gorakorra azaltzen dute Euskal Herrian. Ezin da ahaztu, Tokiko 21 Agendak ingurumen aferan parte hartzeko mekanismorik instituzionalizatu gisa azaltzen direla, hauen helburuetako bat, sozio ingurumen gatazkak detektatzea eta kudeatzea delarik. Hala eta guztiz ere, eta zenbakiak azaltzen duten moduan, gatazken gorakada eta Tokiko 21 Agendak elkarrekin bizi dira, bata bestearekiko independentzia azalduz.

4. [http://www.ihobe.es/Pags/AP/AP\\_Municipios/index.asp?cod=2FEF7907-337E-4EF4-B254-F85D5CF1D983](http://www.ihobe.es/Pags/AP/AP_Municipios/index.asp?cod=2FEF7907-337E-4EF4-B254-F85D5CF1D983)

Ildo horretatik eta aurretik adierazi izan den legez, sozio ingurumen gatazkak demokraziaren irteera zentrifugoa lantzeko esparruak sortzen dute, bai eta T21Ak prozesu parte hartzaile (izan behar) diren heinean.

### 3.2. Kasuz-kasuko azterketa

Kasu bakoitzaren analisia azaltzeko eta komunikazioek duten tamaina mugapena salbatzeko sozio ingurumen gatazka bakoitzaren laburpen fitxa aurkezten dugu.

#### 1. Gatazkaren izena eta lekua: Kaltzita harrobia. Ilarduia (Araba)

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Pasa den 90. hamarkadaren azken urteetan, EVEk kaltzitaren ustiapenaren bideragarritasuna erabakitzeko ikerketa bat hasi zuen. EVE, 2002.ean eta 2004.ean, Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila eta ekimen pribatuaren eskutik (PMC eta Echave azken proposamenean) joan da; aitzitik, Eusko Jaurlaritzaren Ingurugiro Sailaren jarrera kontraesankorra izan da (Intxurraga vs Larrañaga). Ilarduiako Herriak, 2004ean burutu zen erreferendumean atzera botoa zuen proiektua. Aitzkorri- Aratz Parke Naturalaren baliabide-antolamenduko planarekin batera (BNAP) berriro harrobiaren proiektua sartzen saiatu ostean aferak Justizia bidea hartu zuen. 2008ko uztailan EAEko auzitegiak behin betiko atzera botoa zuen harrobiaren ustiapena.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Sortu diren dinamika parte hartzaileak demokrazia zuzenaren eskutik etorri dira (kontzejuak). Horrez gainera, eta kontzeju bide horretatik, informazio zuzena eta gardentasuna izan dute irizpide. 21TA (Asparrena) ez du proiektu inguruaren eztabaida sortu.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Kontzeju irekien markoan, Ilarduia kasu, tokiko hiritarrak bertan daude eta bertan erabakitzen dute.

#### 2. Gatazkaren izena eta lekua: Golf zelaia eta horri loturiko urbanizazioak. Bastida (Araba)

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Herriaren ike ekonomikoari aurre egiteko asmoz 2003. urtean enpresari batzuk eratu zuten *San Ginés Labastida SA*. Pauso horien helburua golf zelaia eta eraikuntza urbanistikoa ziren. Udalak onartu egin zuen proiektua hirigintza-antolamenduko planaren berrikuspena bultzatuz. San Gines ingurunea eta ondare publikoa defendatzeko asmoz 2005. urtean Torrolate Plataforma (plurala) eratu zen. Benetako parte-hartzearen eza salatuz Torrolate Plataforma Arartekoarengana zuzendu zen, arrazoia emanez plataformari 2008ko apirilean. Proiektuak tokiko egoera politikoa baldintzatu du: 03 PP, 07 EB, 09 zentzura mozioa eta proiektuaren aldekoek berriro hartzen dute udalaren gidaritzatza. Aferak, promotoreen kontrako bide judiziala hartzen du, baina 2009ko ekainean Herrialdeko Auzitegiak kausa artxibatuz prozesua ixten du.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Parte-hartzerako dinamika instituzionalak ez dira sortu, golf proiektua helburua izanez 2006ean proposatu zen foroa izan ezik. Ez zegoen 21TA, gaurkoan eratzen delarik.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Torrolatek eztabaida soziala sortu eta bultzatu egin du; informazio publikoa sortzen du eta publikotasun ikurra aitzindaritza hartzen du, mobilizazioa bultzatuz.

### 3. Gatazkaren izena eta lekua: **Lekeitioko saihebidia (Bizkaia)**

Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera: Lekeition aspaldiko arazo larria da trafiko handia pairatu behar duela herriko erdiguneak, batez ere udan eta hondartzetarako denboraldia zabaltzen denean. Kale estuak dira askotan eta aparkatzeko arazo larriak daude ere. Udalak aspaldian zeukan aldarrikapen moduan saihebidearen beharra baina Esker Abertzaleak alkatetzak eskura zuen bitartean holako obrak egiteko konpetentziak eta diruak dituen Bizkaiko Foru Aldundiarekiko harremanak ez ziren errazak izan (horrela salatzen zuen, behintzat, Lekeitioko Udalak) eta proiektua atzeratzen joan zen. Hala ere, 2.000-2.004 legegintzaldian akordio batetara iritsi ziren udaletxean zeuden hiru alderdiak (hots, Esker Abertzalea, EAJ eta EA), Aldundiaren oniritziarekin saihebidia proiektu zehatz baten inguruan. Baina hurrengo legegintzaldian (2.004-2.008), Alderdien Legearen ezartzearen ondorioz, Ezker Abertzalea udalbatzatik kanpo geratzen da eta gobernu-ekipo berriak eta Aldundiak beste proiektu bati ekitea erabakitzen dute, "aukera guztietatik luzeena, garestiena, eta inpaktu gehien duena" ordutik aurrera kontra aritzen den plataformaren esanetan. Esan behar da proiektu horretan bi ekimen nagusi aurreikusten direla: Markina/Ondarroatik datorren errepidea eta Gernikakoa lotzeko obra, alde batetik, eta, bigarren fase batetan Lekeitioko zabalkunde urbanistikorako balio dezakeen errepide barri bat, faro aldean dauden lursail hutsetara bideratuko litzatekeena.

Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak: Informazio mekanismoak.

Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak: Firma bilketa, hitzaldiak, panfletoak, bilerak eta asanbladak.

### 4. Gatazkaren izena eta lekua: **Zornotza (Amorebieta, Bizkaia)**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Ziklo konbinatuko zentralaren proiektuaren inposizioa Amorebietan. Gaur egun funtzionamenduan dago. 2003an obrak hasi ziren. 2005ean zentralaren inaugurazioa ematen da. 2001 Erreferenduma.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Mekanismo informatiboak.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Erreferenduma (5.352 botoetatik %98 kontra), manifestaldiak, asanbladak, performance parte-hartzaileak...

### 5. Gatazkaren izena eta lekua: **Urnietan errauskailua instalatzeko proposamena. (Urnietan- Gipuzkoa)**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Gipuzkoako hondakinen Plan Integralaren barruan kokatutako proiektua da errauskailu bat egitea Gipuzkoako zaborra biltzeko. Herritarrek behin proposamena ezagututa, kontrako jarrera azaltzen dute. Arnasa tokiko plataforma sortzen da oposizioa bideratzeko.

Urnietako lekua atzera botatzen da. Gaur egun errauskailua Donostian dagoen Zubieta udalerrian gauzatzear dago. Hondakinen tratamendurako planta 2012an eraikitzen hasiko da, 2014an bukatuta egotea espero da.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Dinamika informatiboak eta kontsultibo ez lotesleak (inkesta).

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Dinamika informatiboak, T21Ako foroa martxan jartzen da, Asanblada irekiak, plataformen sorrera eta manifestaldi publikoak.

## **6. Gatazkaren izena eta lekua: Mutrikuko portuaren birantolatzea. (Mutriku- Gipuzkoa).**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Mutrikuko itsas Portuaren handitzea gainditu zen EJren aldetik 2005ean, tokiko udalak proposatuta. Azpiegituraren inpaktu handia kritikatu ez ezik, kolektibo anitzek portuaren handitzea ezbeharrezkoa ikusten dute, izan ere tokiko arrantza eta itsasontzi mugimendua hontzi txikiak osotzen baitute. 2009. Urtean Estatu espainiarreko gobernuak proiektua kolokan jartzen du, Gipuzkoako Audientziak prebarikazioa antzeman baitzuen kasuan. Hala ere, proiektuak bi urteko epealdia izan ondoren, 2011ko otsailean, Mutrikuko hondartzaren berreskurapenerako, igerileku natural baten sorrerarako eta itsas portu birformulatua handitzeko baimena jaso zen.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Hitzaldi informatiboak, T21Aren foroan gaia eztabaidatu da baina erabakiek izaera loteslerik ez dute, Stakeholder fokatzea duen jarraipen batzordea.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Hitzaldi eta asanblada informatiboak, asanblada irekiak, erreferenduma gauzatzeko proposamena.

## **7. Gatazkaren izena eta lekua: Zestoa errauskailua instalatzeko proposamena (Zestoa- Gipuzkoa)**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Gipuzkoako hondakinen Plan Integralaren barruan kokatutako proiektua da errauskailu bat egitea Gipuzkoako zaborra biltzeko. Herritarrek kontrako jarrera azaltzen dute behin proposamena ezagutu. Urola-Kosta Bizirik tokiko plataforma sortu zen oposizioa bideratzeko. Zestoako lekua atzera botatzen da eta gaur egun (2009) Zubietan dago proposatuta errauskailu bat bai eta Txingudin beste bat.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Bat ere ez.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Hitzaldi eta asanblada informatibo irekiak, sinaduren bilketa, kontzentrazio eta manifestazioak, udaletxearen okupazioak ez-ohiko udal sasoiak gaia jorratua izan zezan eta udal gobernu herri-kontsulta antolatzeako konpromisoa hartzen behartzeko.

*Gonbidapenez eta Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Herri-kontsulta udal gobernu eta herri plataformaren artean antolatuta (teorian loteslea; emaitza bata edo bestea izanik ondorio batzuk aurreikusten ziren, hauen betetzea oraindik ikusteke dago).

## 8. Gatazkaren izena eta lekua: **larra (Nafarroa)**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* 2000.urtean Erronkariko Ibarreko batzarrak Larrako eski pistak handitzeko aurreproiektua aurkeztu zuen. Proiektu hau aurrera eramateko Nafarroako natur guneen lege aldaketa beharrezkoa zen eta 2003.urtean nafar parlamentuak aldaketa hau baimendu zuen. Bai Bailaran, bai Nafarroan proiektuaren kontrako taldeak sortu ziren. Gurelurra eta Larra Belagua bizirik ditugu azpimarragarri. Elkarre hauen parte harztearen ondorioz proiektua Nafarroako Justizia Nagusiko Auzitegira heldu zen auzi errekurtsua dela medio. Ondorioz proiektuak aldaketa batzuk jasan zituen eta 2008.urtean Larrako eski estazio berria ireki zuten.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Hitzaldi informatibo bat.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Hitzaldi eta asanblada informatiboak, asanblada irekiak.

## 9. Gatazkaren izena eta lekua: **Itoizeko urtegia (Itoiz, Nafarroa)**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* 1985ean onartu zen proiektuak, Nafarroatik ura bideratzeko urtegi erraldoi bat egitea bilatzen zuen. 20 urtetik goitiko gatazka da Itoizekoa. 1985etik zenbatezinak dira Itoitz inguruan eta Iruñean izan diren manifestazioak eta elkarretaratzek, naturaren asteko kanpaldiak, hitzaldiak eta mahai-inguruak. Itoitzekin Elkartasuna taldeko kideen eskutik, 1995etik aurrera, jauzi kualitatiboa izan zen mobilizazio horietan. Europako Auzitegi Goreneko epaiak, Giza eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak eta lege aldaketak jaso dira gatazkaren zehar. Kanpo zertifikazioak jaso dira eta aktore juridikoak parte hartu dute gatazkan, hala ere urtegia egin dute. 1985. urtean onartu zen proiektua, eta oposizioak bere horretan segitzen du haren aurka bide juridiko eta mobilizazio sozialaren bidez. 2004tik, segurtasunaren auzia da haien argudio nagusia. 340 lurrikara egon baitira urtegia bete zutenetik.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Mekanismo informatiboak.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* kanpaldiak, hitzaldiak, mahai-inguruak, plataformen sorrera.

## 10. Gatazkaren izena eta lekua: **AHT Iparralde**

*Gatazkaren deskribapen laburra eta gaur egungo egoera:* Europako eta Frantses gobernuaren egitasmoa AHT proiektua Bordeletik Hendaiara eraikitzeko. 2006an kontsulta prozesu bat egin zen eta eztabaida eta saioretan aldeko zein aurkakoak egon ziren, nahiz eta kontsultaren helburua zer motako AHT izan zen.

*Gonbidapenez sortutako dinamika parte hartzaileak:* Interlokuzioa bai, parte haritze mekanismorik ez.

*Oldarka sortutako dinamika parte hartzaileak:* Manifestaldiak eta asanbladak.



## 4. ONDORIOAK

Ondorioak aurkezteko, lau taldeetan banatzea komenigarri ikusten dugu ikerlanaren zehar aztertutako sozio ingurumen gatazken kasuko azterketetatik sortutako konklusio nagusiak. Lehenengo eta behin, Tokiko 21 Agenden funtzionamenduaren inguruko ondorioak azalduko dira, bigarrenik, sozio ingurumen gatazken prozesuaren garapenaren inguruko eta emandako dinamika parte hartzaileen inguruko konklusioak aurkeztuko dira. Hirugarrenik, kultura politikoaren dimentsioa jorratzen dituztenak paratuko dira eta azkenik, genero dimentsioa azaltzen dituzten ondorioak aztertuko dira.

### 4.1. Tokiko 21 Agendak; funtzionamendua, garapena eta egoera

- T21A-k *low profile* gaietan izaten dute esku hartzea eta ez dituzte gatazkakortasun maila handia dutenak kudeatzen: Ez dago dudarik parte- hartzea, generoa eta sustengarritasuna “gobernu on” guztien printzipio estrategiko eta zeharkako nagusiak” direla. Erabaki txikietan, denbora luzean hartu ahal direnak eta normalean proiektu estrategiko eta ekonomiko etekingarriak kolokan jartzen ez dituztenean printzipio horien garapen sinboliko- operatiboa ematen da. Baina *high profile*ko gaiak, ekonomikoki estrategikoak eta azkar hartu beharrekoak printzipio horien guztien agurra suposatzen du, eta “interes orokorra”-ren ikurrinpean administrazioaren eta gobernu inositiboaren printzipioak gailentzen dira; generoa, parte- hartzea eta sustentagarritasuna bigarren mailara jaitsiz. Esaldi batean laburbil genezake jarrera: “Hau garrantzitsua da, ez dago denbora horretarako”. Kontrakoa izan beharko.
- Interesen lerrokatzea eta apustu politikoa T21A martxan jartzeko aukera gisa: Errealitatean parte- hartze horren egikaritzarako, alegia, Tokiko 21 Agendak eta oro har dinamika parte hartzaileak aurrera eramateko bi ditugu beharrezkoan diren aurre- baldintzak. A) Parte- hartzearekiko elite politikoen apustua B) Elite politiko eta sozialen interesen alineamendu puntuala ematea. Azken honen adibiderik argiena Donostiako IAKren (Ingurumen Aholkularitza Kontseilua) sortzea da.

### 4.2. Sozio ingurumen gatazkak; prozesua, izaera, garapena eta parte hartzea

Sozio ingurumen gatazken muinean, negozio ekonomikorako dinamikak aurkitzen dira. Gatazka mota hauek euztura ekonomikoaren oinarri diren gaiei eragiten dieten heinean, eta zentsu horretan, eredu ekonomikoaren ildoak marrazten duten heinean, *high profile* gaiak direla esanzen dugu.

Gai hauetan mekanismo parte hartzaile lotesleak- erabakigarriak antzematea saila da baldin eta ez bada ematen elite politiko eta sozialen arteko interesen lerrokatzea edo “alineamendua” (Tarrow, 1997). Beraz, sozio ingurumen gatazka hauen irakurketa ekonomikoa kontuan hartzea beharrezkoa da hausnarketa konplutua egiteko (alegia, interesen eta egoeren azalaraztea).

Promotoreen parte hartzearen ezeztatzea nagusitzen da sozio ingurumen gatazketan. Aztertutako kasuetan, promotorearen aldetik anitzetan errepikatzen den dinamika, mekanismo parte hartzaileekiko dinamika autoritarioa garatzea da, honen operazionalizazio nagusia informazioa ez ematean datza. Horrekin batera, mekanis-

mo parte hartzaileen defizita sumatzen da, izan ere, aztertutako kasu guztietan mekanismo demokratikoen defizita aurkitu izan da. Soilik Tokiko 21 Agendak ematen dituen mekanismoak eta legez sortu behar diren informazio publikorako esparruak sortu izan dira.

### **4.3. Kultura politiko berritzailea**

Mekanismo parte hartzaileak sortu diren gatazketan, herri kontsulten sortzea, bada fenomeno errepikatua. Horrela, herri kontsulta eredu teoriko desberdinak topatu izan ditugu errealtatean. Aurretik esan beharko litzateke, kontsultaren bidez, ez dela tesi ez ezagutza berririk sortzen. Kontsulta, mugimendu batek edo instituzio batek sor dezake, baina aktore honek bilatzen duena bere posizioen legitimazioa da. Kontraz, oldarka sortzen diren kontsultetan, mugimenduaren legitimazioa instituzioaren deslegitimazioa suposatzen du. Bi kontsulta eredu aurkitu izan dira; batetik, kontsulta oldarkako tresna gisa; gizarte mugimendu batek kontsulta deitzen duenean ematen da eta, administrazioetik bide guztiak itxi direlako sortzen da (kasu honen adibide argia Atxondon, AHTren inguruan sortutako herri kontsulta da). Instituzioekin konfrontazio egoera da non suma zero emaitzak berdin dion, inportanteena kontsulta administrazioaren deslegitimaziorako tresna bihurtzen da. Bestetik, kontsulta hiritarren iritzia emateko tresna gisa azaltzen zaigu. Izan liteke administrazioetik bertatik kontsulta deitu izatea hiritarren gehiengoaren iritzia jakiteko helburuz. Zentzu horretan, kontsultaren helburua ez da legitimazioa baizik hiritarren iritzia biltzea. Hiritarren legitimazioa ematen da honetan aurrekoekin aldentuta.

Kultura politikoari so, sakonean aztertutako hamabi kasuetatik hirutan sozio ingurumen gatazken prozesuan sortzen diren plataformak eta herri mugimenduak zenbaitetan hauteskundeetara aurkezten eta dinamika elektoralisten barne sartu izan dira. Plataforma edo issue- mugimendua izatetik aukera politiko bat izatera igarotzen duen agenteak helburu, programa eta ekintza dinamiken eraldaketa jasotzen du, boterearekiko harremana aldatzen baitu (boterea eraldatzetik, boterea lortzeko borrokan parte hartzea).

### **4.4. Emakumeak eta parte hartzea sozio ingurumen gatazketan**

Gatazkaren prozesuaren zehar emakumeen eta gizonen arteko botere harremanaren inguruan galdetzerakoan erantzunak “politikoki zuzenak” izan dira beti emakumeen presentziaren beharrezkotasuna azpimarratuz. Baina dinamika konkretuen azterketa egiterakoan honako joerak aurkitu izan dira aztertutako kasuen %100ean:

1. Mekanismo parte hartzaileetan (bai oldarkakoetan, bai gonbidapenezkoetan) ez dira emakumeen beharizan estrategikoen inguruko gogoetarik ez eztabaidarik irekitzen.
2. Gatazkaren zehar garatzen diren mekanismoak garatzen direla ez dira emakumeen parte hartzearen inguruan hausnarketarik egiten.

Zentsu horretan, agerikoa da, sozio ingurumen gatazken barne sortzen diren mekanismo eta dinamika parte hartzaileetan, genero perspektiba garatzeko bidea jorratu behar dela oraindik.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- AGARWAL, Bina. 1992. *The Gender and Environment Debate; lessons from India* Feminist Studies, 18 (1).
- AGARWAL, Bina. 1996. El debate sobre las relaciones entre género y ecología; conclusiones desde India. *Mujer y ecología, ¿Una relación contra natura?* Mientras tanto aldizkarian (65 zki. 1996ko udaberriari).
- AGUILAR, Susana. 2003. "Conflictividad medioambiental: actores enfrentados entorno a decisiones relacionadas con el medio ambiente" *Observatorio medioambiental de la Universidad Complutense* n.º 6. Alean (25-35).
- AGUILERA, Federico. 2006. *Calidad de la democracia y protección ambiental en Canarias*. Fundación Cesar Manrique. Kanariar Irlak.
- AGÜERA, Mercè. 2008. "L'activisme femení en conflictes ambientals. Reflexions en clau feminista: apunts per a la gestió del medi": *Documents de anàlisi Geogràfica*. 51 (13-37).
- BAUTISTA, M<sup>o</sup> José. 2006: "Experiencias de A21L en España"; MURGA, M<sup>o</sup> Ángeles. 2006: *Desarrollo Local y Agenda Local 21*. Pearson. Madril.
- BARCENA, Iñaki; IBARRA, Pedro; GUARROTXENA, Eunete; TORRE, Jon. 2003. "Environmental protest in Basque Country"- ROOTES, Christopher: *Environmental protest in western Europe*. Ecpr. Oxford University Press. New York.
- BARCENA, Iñaki; IBARRA, Pedro; ZUBIAGA, Mario. 2000. *Desarrollo sostenible: Un concepto polémico*. UPV-EHU, Bilbao.
- BIGUES, Jordi. 2000. "La democràcia ambiental: Un camí complex. Medi ambient, tecnologia i cultura. N<sup>o</sup> 26. Junio 2000. <http://www.gencat.net/mediamb/revista>.
- BLAS, Asier. 2005. "Demokrazia parte-hartzailea: ezkeraren helburu berria?" *UZTARO* 53.zkia. (119-129).Bilbao.
- CASTELLS, Manuel. 2000. *La era de la información, el poder de la identidad*. Siglo XXI. México.
- CRESPO, Carlos. 1999: "Políticas públicas, gobierno local y conflictos socioambientales" FAO -FTPP konferentzia elektronikorako prestatutako komunikazioa. Quito. Formatu digitalean eskuragarri: [www.rlc.fao.org/foro/media/Sesion2.pdf](http://www.rlc.fao.org/foro/media/Sesion2.pdf) [Kontsulta: 2007- IV].
- DAHL, Robert. 1993. *La democracia y sus críticos*. Paidós, Barcelona.
- DEL ÁGUILA, Rafael; VALLESPÍN, Fernando. 1998: *La democracia en sus textos*. Alianza. Madril.
- DOBSON, Andrew. 1996. "Democratizing Green Theory. Preconditions and principles". In DOHERTY, Brian. *Democracy and Green Political Thought. Sustainability, Rights and Citizenship*. Routledge. Cambridge University press. New York.
- DOBSON, Andrew. 1997. *Pensamiento político verde*. Paidós, Barcelona.
- ENCINA, Javier; BARCENA, Iñaki. 2006: *Democracia ecológica*. Atrapasueños. Sevilla.
- EMAKUNDE. 1998. *Guía para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo*. Emakunde. Gasteiz.
- FOLCH, Ramon. 1998: *Ambiente, emoción y ética; actitudes ante la cultura de la sostenibilidad*. Ariel. Bartzelona.
- FLYVBJERG. 2003. *Megaprojects and risk, an anatomy of ambition*. Cambridge. Erresuma Batua.
- FREUND, John. 1995. *Sociología del conflicto*. Ediciones ejército. Madril.
- GARRIDO, Francisco Javier. 2005. *Desarrollo sostenible y agenda 21 local. Prácticas, metodología y teoría*. Iepala/CIMAS. Madril.
- HELD, David. 1987. *Modelos de democracia*. Alianza Universidad. Madril.

- JUARISTI, Patxi. 2003. *Gizarte ikerketarako teknikak, Teoria eta adibideak*. Euskal Herriko Argitalpen Zerbitzua. Zarautz.
- ALIER, Joan. 2004. *El ecologismo de los pobres. Conflictos ambientales y lenguajes de valoración*. Icaria, Barcelona.
- MCADAM, Doug; TARROW, Sidney eta TILLY, Charles. 2005. *Dinámica de la contienda política*. Hacer. Bartzelona.
- MOUFFE, Chantal. 2000. *La paradoja democrática*. Gedisa, Barcelona.
- MURGA, M<sup>a</sup> Angeles (coord.). 2006. *Desarrollo local y agenda 21*. Madrid. Pearson.
- OIDP. 2006. *Guía práctica para la evaluación de los procesos participativos*. OIDP. Bartzelona.
- RIECHMANN, Jorge. 2008. *¿En qué estamos fallando? Cambio social para ecologizar el mundo*. Icaria. Bartzelona.
- SHIVA, Vandana. 2005. *Manifiesto para una democracia de la tierra; justicia, sostenibilidad y paz*. Paidós Estado y Sociedad 144. Bartzelona.
- TARROW, Sindney. 1994. *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Alianza Universidad. Madril.
- WHITE, Lynn. 1967. "The historical Roots of our ecological crisis" *Science*. Aldizkarian.

### **Erabilitako webguneak**

<http://www.sostenibilidad-es.org/NR/ronlyres/85E9F342-C393-4F9C-BC7F-445551-A37677/3514/Agenda21localenpueblos.pdf> [Kontsulta: 2011.11.19]